


GUDARI BATI

azken agurra

Francisco Pérez Luzarretak Gernika Batailoiarekin borrokatu zuen Bigarren Mundu Gerran nazien kontra. Bere errautsak Grave lurmuturreko (Gironde, Frantzia) itsasertzean zabaldu zituzten.

 MAURO SARAVIA

1944an Kepa Ordokik brigada bat sortu zuen Euskadiko Gobernuaren aginduz, Frantziako Estatuan zeuden ideologia askotako euskaldunekin. Boluntario hauek batzuek bazuten esperientziarik borrokan 1936ko Gerran, eta Euskal Herria faxistengandik askatzea zuten helburu, Mussolini eta Hitlerrekin batera Francorekin ere amaituko zutelakoan.

Brigada hori frantziar gudarosteko parte izan zen: "Gernika Batailoia" izena zuen. Medóc penintsulako (Gironde, Frantzia) Grave lurmuturrean lubakituta zeuden 4.000 alemaniarren kontra aritu ziren 1945eko apirilaren 14tik aurrera. 159 gudari eta 26 erreserbistaz osaturik, alemaniarrek Garonako ezkerretik kanporatu eta Arros gotorlekua bereganatu zuten, 200 lagun preso hartuta.

Jose Ramon Aranberria, Antonio Arri-zabalaga, Gotzon Arruti, Joaquin Atorrasagasti eta Francisco Pérez dira historia horren protagonistetako batzuk. Bidean, 35 zauritu eta bost hildako: Juan Jausoro, Felix Iglesias, Antton Lizarralde, Prudencio Orbiz eta Antonio Mugika.

84 urte geroago...

2018ko abenduaren amaieran Francisco Paco Pérez Luzarreta hil zen Beran. Aurretik familiari azken guraria eskatu zion: "Nire errautsen zati bat emaztearekin uztea nahi dut, eta bestea Frantzian, Gernika Batailoiko burkideekin borrokatu nuen tokian".

Hala, 2019ko maiatzean batailoi hartako gudarien senide eta lagunek bidaia antolatu zuten Pacoren familia lagundu eta borrokatu ziren tokiak eta bunkerrak ezagutzeko.





▲ Cote 40

Senideak eta lagunak memorialean elkartu dira. Monumentuak Medoc-eko guda-egunak eta han hil ziren 43 lagunak oroiatzen ditu.

Aurreko orrialdetako argazkian, bisitarietako bat Solac-etik gertu dagoen bunkerreko barne instalazioei begira.

◀ Lore eskaintza

Francisco Pérez Luzarreta gudariaren ilobak lore eskaintza egiten memorialean.



Jean Paul

Jean Paul Lescorrek bisita gidatuan azaltzen du zer funtzio zuten bunkerrek. Historialari frantziarrak hamarkadak daramatza inguruko bunkerrak zaharberritzen. Jean Paulen gurasoek taberna zuten herrian eta 7 urterekin bunkerretara

joaten zen alemanei jan-edana ematera gozokien truke. Bere kalkuluaren arabera, 1941 eta 1943 artean Derrigorrezko Lan Zerbitzuen bidez halako 350 eraiki zituzten kostalde horretako zazpi kilometrotan; "Atlantikoko Murruren" parte ziren.

Hitlerrek 15.000 azpiegitura eraikitzea agindu zuen aliatuen erasotik babesteko -Norvegiatik Ipar Euskal Herriraino- eta horretarako 400.000 lagun mobilizatu zituzten. Gutxienez mila urte iraun behar omen zuten.



Argazki ezezaguna

Remy Lacaze ikerlariak senide eta lagunei erakusten dizkie Gernika Batailoiaaren argazki ezezagunak.

Ikurrina

Gernika Batailoiko betaranoen zeremoniarako ikurrina Arrosetako bateriako bunkerrean, "Maitasuna" jartzen duen graffiti baten ondoan.



▲ Zauritua

Jose Ramon Atorrasagasti, Joaquin Atorrasagastiren semea, bere aita borrokatutako bunkerretan barrena. Joaquin Bilboko zen sortzez eta 18 urterekin ezker besoan zauritu zuten guduan zebilela.

◀ Gudaren agerlekuak

Paco Pérez Luzarretaren iloba paisaiari begira eta bere osaba ibilitako hondarezko tokiei so.



Bi lagun

Ander Aranberria (ezkerrean) eta Antoine Arrizabalaga (eskuinean), Jose Ramon Aranberria eta Antonio Arrizabalaga gudarien semeak. Gernika Batailoiaren bala-kutxa originala dute eskuan, Michelle Arroyo gudariak gordeta. MG-34 metrailadore alemaniar

bati dagokion muniziorako kaxa da.

Memorialetako bisitetan begiradak elkar trukatu baizik ez dituzte egin, baina kaxa horrek hizketan jarri ditu Ander eta Antoine, eta hala jakin dute euren aitak lagun minak izan zirela. “Gure aita Ondarroatik Iparraldera

joan zen hiru lagunekin, eta ondorengo borroketan haietako batek begia galdu zuen”, dio Anderrek. Eta Antoineren erantzuna: “Gure aita ere Ondarroakoa zen eta zuenarekin batera etorri zen ontzian, bera zen begia galdu zuena”.



Azken-nahia

Gudari zaharraren errautsak zabaltzen.



Gernika Batailoiaren eta bere txakur “Asta”-ren oroigarritzat Paco Pérezek soinean eraman ohi zuen argazkia.